

Prentsa Oharra: 2014ko itxieraren aurrerapena

## **Irizar Taldeak 2014 urte handia itxi du. 125. Urteurrenean 500 milioi euroko fakturazioa gainditu du berriz ere, merkatu guztietan marka sendotuz eta Ormaiztegin lanpostu sorrera handiarekin.**

*Ormaiztegin, 2015eko urtarrilaren 23an*

Irizar Taldeak 535 milioi euroko fakturazio metatuarekin itxi du urtea, haietatik % 82 esportazioa merkatuei dagozkienak.

2014 urte bizia izan da. Aurreko urteetako hazkunde parametroak txikitu egin dira, batez ere garatze bidean dauden herrialdeetako ekonomiek hazkunde txikiak izan dituztelako.

Krisiak iraun duen bitartean atzerriko lantegiak izan dira, Brasil eta Mexiko batez ere, taldearen hazkundera bultzatu dutenak. Aurten, ordez, joera hori irauli egin da eta Irizar Ormaiztegi izan da gehien hazi dena. Horri esker garatze bidean dauden herrialdeetako gainbehera egoera orekatu ahal izan da.

2014an atzerriko lantegiek taldeko salmenta guztien % 42 lortu dituzte eta iaz % 47. Aldiz, Ormaiztegi % 38 eta iaz % 33. Taldeko gainerako konpainiek lortu dute fakturazioaren gainerakoa, % 20 hain zuzen.

Beraz, aurten **Irizar Ormaiztegin** autobus produkzioaren hazkundera hitz egin dezakegu berriz ere, iaz baino % 15 gehiago. Eta iaz ere 2012arekiko % 15 hazi zen. Eta % 47ko merkatu kuota lortu dugu Espainian, Irizarreko historiako handiena. Bi arrazoi nagusi daude horretarako. Bata, produktutako gure markako autokarren nahiz ohikoen kopurua igo egin dela. Bestea, autokar horien ekipamendua hobetu izana Europako merkatuei erantzun ahal izateko.

Gainera, Irizarren 125. urteurrenarekin bat etorritik, produkzio eta zerbitzu instalazio berriak inauguratu ditugu Gipuzkoako gure egoitza nagusian: diseinu gunea, gune korporatiboa, I+G zentroa, eta autokarrak entregatzeko eraikina. Horri guztiari gehitzen badiogu kanpo komunikazioan egindako ahalegin handia, Taldearen irudiak jauzi handia egin du irudiari dagokionez, onenen artean kokatzeko asmoz.

Irudia hobetzeak, kalitatea eta zerbitzua hobetzearekin batera, marka sendotzea eragin du eta datorren urteari baikortasunez begiratzen diogu. Autokar integralen fabrikazioa bikoiztea espero dugu eta Estatu Batuetan lehen unitateak saltzea.

Ormaiztegi egoitzaren hazkundera finkatzearen ondorioz lanpostu egonkorak sortu ditugu. 63 pertsona hasi dira gurekin lanean, haietako 46 goi mailako heziketa zikloak ikasitakoak eta 17 goi mailako lizentziadunak.



### **Atzerriko lantegietan fakturazioa % 15 jaitsi da.**

**Brasilen** bertako merkatua % 40 jaitsi da unitateei dagokionez eta Irizarren estrategia izan da Premium merkatuan duen posizionamenduari eustea eta esportazioak indartzea merkatu nagusienetan.

**Mexikon** merkatua % 20 inguru uzkurdu da, batez ere gobernu berriak egindako erreformen ondorioz.

**Marokon** urtea oso ona izan da. Herrialde hartako luxuzko merkatuari erantzuteko autokarrak fabrikatzen jarraitu dugu eta Century modeloko karrozeriak egin ditugu Europako merkaturako.

Bestalde, aipatzekoa da Taldea behin betiko irten dela Indiatik. Orain arte han jarraitzen genuen hango bi bazkiderekin joint venture baten bidez. Erabaki hori hartzeko arrazoi nagusia da negozioa ez dela inolaz ere lerratzen taldean marka sendotzeko lantzen ari garen estrategiara.

Taldeko gainerako enpresek jokaera positiboa izan dute.

Datik nabarmendu nahi dugu. Garraio arloko informazio inteligentedun sistemetan eta segurtasunean hazteko aukerak baieztatu ditu, Mexikoko operadore handiekin garrantziko kontratuak sinatu baititu lehen aldiz.

Irizar taldearen teknologia duten lehen autobus elektrikoak entregatzen hasi izanak ere aipamen berezia merezi du. Eta baita Adunan erositako lursailak ere, han kokatuko baita Taldeko elektromugikortasun arloko lantegia.

### **2015. urteari baikortasunez ekin diogu**

Baikor hasi dugu urtea, gure aurreikuspenen arabera Irizar Ormaiztegi hazten jarraituko baitu fakturazioari dagokionez. Horrek, noski, gure inguruan lanpostu berriak sortzea ekarriko du.

Irizar markako autokar integralen fabrikazioa bikoiztea espero dugu, 200 unitate, hain justu eta ekoiztiko unitate guztien % 20 izatea mota horretakoak.

Era berean, Mexikoko ekonomiak hobera egitea espero dugu eta Brasilen 2014ko egoera bertsuarekin jarraitzea.

Europarako Century modeloko unitateak Marokoko lantegian fabrikatzeko estrategiarekin jarraituko dugu.

Taldeko gainerakoei dagokionez, Jemaren hazkunde handia aurreikusten dugu energia fotovoltaikoko planten eguzki-inbertsoretan eta Datikek indartsu hazten jarraitzea.

Horrez gain, Taldeko elektromugikortasun arloko lantegia eraikitzen hasiko gara Adunan, asmoa baita 2016an produktuak, osagaiak eta sistemak fabrikatzen hastea.



Irizar S. Coop. | Zumarraga bidea, 8 | 20216 Ormaiztegui (Gipuzkoa) | Spain | T +34 943 80 91 00 | F +34 943 88 91 01 | irizar@irizar.com | [www.irizar.com](http://www.irizar.com)

Informazio gehiagorako kontaktua:

Ana Eceiza

Emaila: [aeceiza@irizar.com](mailto:aeceiza@irizar.com)

Tel.: +34 667181833